



15 urte indarrean, eta ahul



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Kiotoko protokoloa, 2005eko otsailaren 16a. Duela 15 urte, Japoniako hiriaren izena daraman ingurumen protokoloa jarri zen indarrean. Kiotoko protokoloak klima-aldaketa geldiaraztea eta, horretarako, berotegi-efektua eragiten duten gasen igorpena kontrolatzea du helburu, eta ezarpenaren lehen fasearen (2005-2012) helburua igorpenak % 5,2 murriztea zen. Baina protokoloa onartu zuten herrialde guztiek ez zuten helburu berdina. Alemaniak, esaterako, %21 murriztu behar zituen igorpenak eta beste herrialde batzuei ez zitzaizkien eskatu emisioak jaistea, igoera mugatzea baizik; Espainiako Estatuak, adibidez, igorpenak %15 igo behar zuten soilik.

Berez, protokoloa urte batzuk lehenago onartu zen, 1997ko abenduaren 11n, hamar egunetako negoziazioen ondoren; batzordekide batek “akordioa negoziatzaioari esker baino aldean akidurari esker” lortu zela aitortuko zuen gerora. Batzordeko presidente Raul Estrada Oyuelak protokoloa “aho batez” onartu zela jakinarazi zuenean, Kiotoko kongresu jauregian bildutakoek pozez ospatu zuten. Negoziatzaileen esanetan une horretan lor zitezkeen konpromisorik zabalena eta osoena izan arren, ez zen nahikoa. Pozak ez zuten iraun.

Protokoloaren bidea nekeza izan da. Duela 15 urte indarrean jarri zenean AEBek ez zuten berretsi eta ordura arte



KIOTOKO PROTOKOLOA ADOSTEKO BILKURA, 1997KO OTSAILEAN. HANDIK SEI URTERA, DUELA HAMABOST URTE, JARRI ZEN INDARREAN PROTOKOLOA.

huraxe zen igorpen gehien egiten zuen herrialdea –2005az geroztik Txina da–. Espainiako Estatuak, 2005ean bertan, oso urrun geratu zen %15eko igoeratik (%52) eta hurrengo urteetan emaitzek ez zuten hobera egin: 2006an %49 igo zituen emisioak eta 2007an, berriro, %52.

Bigarren fasea (2013-2020) are ahulago hasi zen, gas igorle nagusietako batzuk, hala nola AEBek, Kanadak eta Errusiak protokoloaren luzapena ez onartzea erabaki baitzuten. Lehen fasean planetako gas igorpenen %65 arautzen zuen akor-

dioak; bigarren fasean %15 besterik ez.

Bigarren fase hori 2020ko abenduaren 31n amaituko da, baina adituek urte amaierara iritsi beharrik ez dute balantzea egiteko eta protokoloak porrot egin duela ondorioztatzen. Batetik, helburuak ez direlako bete eta, bestetik, askok hasieratik garbi zuten eta ikerlanek geroz eta nabarmenago esaten dutenez, akordioaren helburuak bete izan balira ere, klima aldaketa geldiaraztea ez zelako lortuko. Kiotoko protokoloa ia hilda jaio zelako. ●



Erliebe asiriarrak nonahi

Kurdistango Faida aztarnategian, arrokan zizelkatutako 10 erliebe aurkitu ditu ikerlari italiarrez eta kurduz osatutako lan-talde batek. Arte-lanok 2.700 urte inguru dituzte eta Sargon II.a erregea irudikatzen dute jainko-jainkosez inguratua.

Aurkikuntza garrantzitsua da horrelako erliebe asiriarrak gutxi aurkitu dituztelako orain arte, baina batez ere

hemendik aurrera askoz gehiago topatzeko itzaropena piztu duelako.

Erliebeak ubide batean topatu dituzte, eta ez tenplu batean edo jauregi batean. Jason Ur arkeologoaren hitzetan, horrek erakusten du horrelako erliebeak “leku guztietan egiten zizuzte-la, baita nekazari xumeenek laboreak ureztatzeko ura biltzen zuten tokietan ere”. ●